



BAT GEHIAGO GARA

Leire Salaberria

2022
MARTXOA

«Bat gehiago gara». Nola liteke hiru hitz horiek guztia hantaz gora jartzea?

Bat gehiago izango dira Yun panda gorriaren etxean. Ahizpatxo bat izango du eta ez daki horrek nola aldatuko dion bizitza. Gurasoek ez dute hainbeste denbora izango berarekin egoteko, biloba bakarra izateari utziko dio eta espazioa partekatu beharko du. Denbora eta maitasun pixka batekin, ordea, beste modu batera ikusiko ditu gauzak.

Leire Salaberriak haur txikientzako lehen komikia du hau, eta istorio garrantzitsu bat dakar: ume berri baten jaiotza.

HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-18252-89-1**

ORRIALDEAK: **40**

FORMATOA: **210 x 270 mm**

PREZIOA: **16,50 €**

4 urtetik aurrera

Nabarmentzekoak:

- Haur txikientzako komiki xamurra, ume berri baten jaiotzari buruzkoa.
- Leire Salaberria ilustratzaile sarituak egina, gaztelaniaz eta frantsesez ere argitaratua.
- Umerez kontatutako ipuina, animaliak pertsonaia bihurtuta.



LEIRE SALABERRIA

(Andoain, 1983). Donostian bizi da eta bertan egiten du lan. Arte Ederretan lizentziaduna da EHU, eta Ilustrazio eta Diseinu graduondokoak egin zituen Bartzelonako Eina Centre Universitari de Disseny i Art izenekoan. Boloniako ilustratzaileen erakusketan eta Bratislavako biurtekoan parte hartzeko aukeratua izan zen, eta *Iberoamerica Ilustra* katalogoan erakutsi ditu bere lanak. 30 liburutik gora argitaratu ditu hamaika herrialdetan; esate baterako, Txilen, Espainian, Ameriketako Estatu Batuetan, Italian, Mexikon, Frantzia eta Britania Handian. Liburu horietako asko beste hizkuntza batzuetara itzuli dituzte. Hainbat sari jaso ditu; ohorezko aipamena Sharjahko liburu azokan, Colibrí saria, Fundación Cuatro Gatos saria eta Etxepare saria, besteak beste.



+xO!

txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus

